

## LEHEN URTEAK

XX. mendeko lehen herenean euskal kulturaren alorrean eta, bereziki, literaturaren esparruan izan zen idazle taldeari "Aitzolen belaunaldia" deitu izan zaio sarritan eta horrek berak erakusten du Aitzolen pertsonalitateak eta ekintzak norainoko eragina eta garrantzia izan zuen, beren buruei *olerkariak* zeritzenen artean, Euskal Pizkundearen garaian.

Jaiotzez tolosarra zen eta izena Jose Ariztimuño Olaso zuen. XIX. eta XX. mendeko lehen herenean, Tolosako giroa bere tradizio karlista eta integristak markatzen zuen, baina baita, aldi berean, komertzio- eta industria-garapenak, inprenta-tradizioak, kultura-girotxoak eta hiri-bizitzak ere.



Jose Ariztimuño, Aitzol, 1896-1936.

1



# 2


Tolosako erretore euskaltzalearen irakaspena jaso zuen gaztetan Jose Ariztimuñok: Patrizio Orkaiztegi zen erretore hori, euskal gramatika baten egile eta Asteasuko Agirre eta Mendibururen zenbait liburu argitaratzera eman zituen. Funtsezko formazio euskaltzalean eta ideia sabinozaleetan zor handia ziola aitortzen zuen beti Ariztimuñok. Horretaz gain, aipatu behar da garaiko Tolosako giroa azaltzeko, umetandiko harremanak izan zituela "Tolosako taldetxoak" deitzen zuten lagun taldearekin: Antonio Maria Labaien, Nikolas Ormaetxea *Orix*e, Jose Maria Agirre *Lizardi*, Ixaka Lopez Mendizabal eta beste askorekin. Dударik gabe, Tolosak uzta ederra eskaini zuen guda aurreko giro kulturalan.



Giro baserritarraren erdian hiri kulta eta jauntxoak.

## TOLOSAKO MAGALETIK APAIZTEGIRA

Baina, emaitzak ageri baino lehen, hazia erein behar eta, Jose Ariztimuño haurrak beste bi anaia zaharragoekin batera apaiz egitea erabaki zuen. Lehen ikasketak Tolosan bertan egin ondoren, hamahiru urte zituela, Josu Lagundiaren Santanderreko Comillas apaizgaitegira joan zen Humanitateak eta Filosofia ikastera. Hango irakasleen artean, bereziki aipagarri da, 1907az geroztik, Jose Maria Estefania izeneko josulagun euskaltzalea izan zela literatura-irakasle, eta funtsezko irakaspena eskaini zien garaiko literatura europearrak ikasle izan zituen Euskal Pizkundeko olerkarietako batzuei.



Patrizio Orkaiztegiak bataiatu zuen. Eragin garrantzitsua izan zen Aitzol gaztearengan euskaltzale ezaguna eta abertzalea izan zen Tolosako erretorea.

## COMILLASETIK GASTEIZERA

Jose Ariztimuñok Teologia Sagaratua ikasketak hasi zituen 1917an eta garaiko apaiz sekularrik aukeratuenean egin ohi zuten moduan, bost urteren buruan apaiz bilakatuko zen Comillasen ikasketak amaituta. Orduan, ongi argitu ez den zerbait gertatu zen eta Comillaseko ikastetxetik erauzi egin zuten. Arrazoi politikoak izan ote ziren pentsatu izan da; izan ere, Aitzolek urte batzuk beranduago Euskal Pizkundearen protagonistak izango ziren eta han ikasten zuten Orixe (1888), Luis Jauregi (1896), Nemesio Etxaniz (1898) eta Joseba Markiegi (1894) apazgaiekin harremanetan jarri eta taldetxo euskaltzalea osatzen baitzuten. Halere, Orixe kenduta, gainerakoek bertan bukatu zituzten euren ikasketak. Orixeren arrazoiak ez

zirela politikoak gauza jakina da. Baina, Aitzolen kasuan, arrazoiak argi ez badaude ere, ondorioak bai, eta Jose Ariztimuño bi anaiekin batera Comillasetik atera eta Gasteizeko Seminario Diocesano delakora joan zen.

Hiru urteren buruan, 1922an, Jose apaiz egin zen, 26 urte zituelarik. Gasteizen ikasten ziharduen garaian, Jose Migel Barandiaranen Etnologia Akademian iharduten zuen lanean, eta garai hartan irakasle izandako honen, nahiz Manuel Lekuonaren eragina jaso zuen, euskal kulturaren alorrean zituen kezka ase edo sendotuz, eta zaletasun berriak sortuz.

Apaiz egin ondoren, Gasteizeko seminarioan bertan geratu zen eta Gasteizeko Diozesiaren Misiotarako Propaganda eta Antolaketa Idazkaritzaren arduradun ezarri zuten.

3



Gasteizko Apaizgaitegiko irakasleak: Jose Miel Barandiaran eta Manuel Lekuona, eserita, ezkerreko bigarrena eta eskuineko bigarrena ordena horretan.

# 4

Bestalde, 1924an Garin herri gipuzkoarreko apaiz ekonomo izendatu zuten eta 1929a arte misiolaritzaren ideala itsasten egin zuen lan, bere nortasuna karakterizatuko zuten gaitasun bizkortzailea, antolaketarako doaiak eta borondate suharra zeregin horien zerbitzutan jarri zituelarik. Horren ondorioz, Bartzelonako Misioen Erakusketa nagusiaren arduradun egin zuten eta *Gure misiolariak* izeneko

aldizkari bat ere argitararazi zuten zenbait urtez.

1929an gaixotu egin zen, ordea, bronkioetako eritasun larri baten eraginez, misiolaritza-arloko zereginak nahiz Garingo apaiz ekonomo kargua utzi behar izan zituen eta Donostiara aldatu zen bizitzera. Urte horretan ari zen gorpuzten Euskaltzaleak erakundea eta egoera berri horretan bere ekimen-gaitasun osoa eskaini ahal izan zion aurrerantzean.



## KULTURA ARLOAN

Jose Ariztimuño Olasok, mende hasierako idazle askok bezala, ezizen bat asmatu zuen bere bi lehenengo abizenen hasierak elkartuz: A(r)ITZ+OL osatu zuen eta garaiko egunkarietan 1930etik aurrera egin zuen ezaguna, euskal kultura, politika, literatura eta arteari buruzko hainbat artikuluren oinean.

Donostian zegoenez, eta apaiz-zereginetatik aske bere gaisotasuna zela medio, Aitzol astiaren jabe zen eta horregatik 1930ean hartu zuen Jose Mari Agirre *Lizardi* adiskidearen eskuetatik Euskaltzaleak erakundearen zuzendaritza-ardura. 1936a arte erakunde kultural horrek eraturiko aktibitateen antolatzaile, eragile, promotore, produktore, eta ia beste

guztia izan zen. Haren gorputz eta arima, bestela esateko.

Errepublikaren etorrerak amaiera eman zion Primo de Riveraren diktadura-garaiko zentsurari eta Euskaltzaleak erakundearen aktibitateek norabide zabalagoak izan zituzten orduz goerotik, Lizardik 1928tik 1930era eraturiko eta moldaturiko erakunde euskaltzalearen proiektua praktikan jarri eta bere gisara moldatu ahal izan zuen, errealitateaz zuen ikuspegira moldatuz.

Aitzolek euskal gizartean eragin handiko egitasmo kristaua, abertzalea eta euskaltzalea gauzatzeko ametsa zeraman barnean eta, batez ere, gizarte-komunikabideetan eta irakaskuntzan eragiteko premia

5



Errenteriako Oleriti Jaietako kronikaren argazkiak eta titularrak El Día egunkarian. Egunkariak eskaintzen duen erreportaia grafikoa ikus daitezke Lauaxeta saria jasotzen eta jende ugaria Aitzolen hitzaldia entzuten On-bide aretoan.

# 6

nabaritzen zuen, euskal kulturaren norabidea berak nahi zuen aldera gidatzeko. Aitzolen egitasmoak euskal gizartea eraikitzea eta bere nortasunaren kontzientzia osoki hartzea zuen helburutzat, eta horretarako, erakunde euskaltzaleak eta komunikabideak eragin zituen batik bat.

1930eko udan *El Día* egunkaria atera zuen, Pio Montoia apaiz lagunak horretarako laguntza ekonomikoa eskaini ziolarik. Garai hartako egunkari euskaltzale ezagunena zen *Euzkadi* egunkarian ere argitaratu zituen hainbat artikulu, baina horretaz gain *El Día*-ko editorialaren bidez irakurlego ez

afiliatuengana iritsi nahi zuen eta bere idearioan, abertzaletasuna, progresismoa eta euskaltzaletasunaren zigilua itsatsi zion tinko egunkari donostiarrari.

*El Día*-ko orrien bidez ordurarte inoiz izan gabeko oihartzuna izan zuten aktibitate euskaltzaleek, eta bozgoragailu horrek, manifestazio folkloriko hutsen artetik atera eta protagonismoa eman zien. Sarritan, egunkariko portada edo azalean kokatzen zituen berri euskaltzaleak, apurka-apurka duintasuna, prestigioa eta errekonozimendua eratxeki zielarik euskararen eta euskal kulturaren alde eginiko ekintzei. Horixe zen, hain zuzen ere, bere helburua.



Aitzol Agirrerekin Aitzon, lehendakariaga euskara ikastera etorria zelarik.



## POLITIKA ETA SINDIKALGINTZAN

Aitzolek euskalgintzarekin batera hartuta zuen Aberriarekiko konpromezua ere. Izan ere, bere proiektuak Euskal Herriaren nortasuna bere osotasunean iratzartzea baitzuen helburu. Beraz, lehenengo euskal Estatutuaren aldeko kanpaina parte hartu zuen eta 1936an eratu zen Eusko Jaurlaritzako lehendakari izango zen Jose Antonio Agirre abokatu bilbotarrarekin harreman estua izan zuen kanpainaren garaietatik aurrera.


Nazioarteko nahiz Euskal Herriko politikari buruzko hainbat artikulu argitaratu zituen Aitzolek garaiko egunkarietan, eta saiakera liburu bat ere argitaratu zuen



Jose Antonio Agirre lehendakariarekin Izaban Estatutuaren aldeko kanpaina.

1935ean *La democracia en Euzkadi* "J. de Urkina" ezizenez, euskal instituzio politikoei eta haien bilakaera historikoari buruz.

Bestalde, guda aurreko giroko asaldura politikoarekin batera gizarte-arloan ere ezinegon handia nabari zen. II. Errepublikarekin batera sindikatuek multzo proletario zabaletan gero eta indar handiagoa zuten. Aitzolek, Polikarpo Larrañaga eta Alberto Onaindia apaizekin batera, euskal sindikatu kristauaren, ELA/STVren aldeko kanpaina egin zuen lan. "Apaiz propagandista" talde honek pentsamendu soziala eta kristaua batzeko ahaleginak egin zituen, batez ere, 1931-1833 urte bitartean. Aitzolek, egunkarietako editorialetan eta artikuluetan "J. De Urkina" ezizena ere erabili ohi zuen, arlo honetako bere ideario kristaua eta euskaltzalea ezagutzera emateko.



Liburu hau euskal instituzio politikoei eta haien bilakaera historikoari buruzko saiakera da. Honako edizio hau 1942ko berrargitalpena da.

Beste zenbait ekintzen artean, 1932ko abenduaren 10ean Donostiako Euskal Deklamazioaren egoitzan eztabaida irekia protagonizatu zuen Aitzolek Astigarribia komunistarekin, eta 1933ko urtarrilaren 8an Alberto Onaindia izan zen antzerako ekitaldi batean parte hartu zuena. "Eztabaidarako mitinak" deitu ziren eta izugarriko eragina izan zuten egunkariak adierazi zuten: jendetza handiak, polizia eta abar.

Laster, ordea, Gasteizeko Apezpikutzak agindua eman zuen jakitera horrelako eztabaidetan apaizek parte hartzea debekatuta zutela eta Aitzolen aipamen zehatza egiten zen argitaratu zen oharrean. Apaizek politikari buruzko artikuluak argitaratzeko ere baimena eskatu behar izango zuten aurrerantzean. Horregatik, 1933az geroztik, Aitzolen ahalegin guztiak arlo kulturalera bideratu ziren batik bat.



Aitzolen eta Alberto Onaindiaren mitin baten berri El Día egunkarian (1931).



(Kutxa Fototeka)



## GERRA ZIBILA ETA ERBESTEA

Frankoren altxamendua gertatu zenean, Aitzol Donostian zegoen eta lehen egunetako giro nahasian hara eta hona ibili bazen ere, ihes egiteko gomendatu zioten. Jose Maria Benegas politikariarekin batera igaro zuen muga abuztuaren 2an, eta Hendaian egon zen hilaren amaiera arte. Irailaren 11n Belloc-eko monastegi beneditarrera joan zen beste hainbat errefuxiatu politikorekin elkartzera eta bertan egon zen hilabete inguru.

Denbora horretan bake-akordio bat lortzeko gestioak egin zituen eginahalean. Bere iritziz, inolako zalantzarik gabe Francorekin altxatutako militarrek irabaziko zuten guda eta haiekin negoziatu beharra zegoen, ezinbestez. Bi hilabetetan zehar nazioarteko interbentzio



Beste zenbait errefuxiatu politikoz ezagunekin Belloc-en.

diplomatikoa lortzen saiatu zen, nola edo hala eragozteko gertatzen ari ziren kupidagabeko erasoak eta hilketak. Diotenez, Etxalarreko muga igaro ere egin zuen negoziaketa saio horietako batean, baina atxilotzeko arriskuan gertatu eta ihes egin behar izan zuen.

Ahalegin horiek guztiak alferrikakoak zirela ikusita, etsi-etsian Bilbora sartzea erabaki zuen, Eusko Jaurlaritzaren ondoan aritzeko, zernahi gertatzen zelarik ere, han egon nahi zuen.



Antonio Maria Labaienekin Donibane-Lohizunen 1936ko irailan.

## “ASKATASUN AGIRIA”

Urriaren 13an Donibane Lohitzunera joan zen eta han Alberto Onaindia agurtu zuen Erromara zihoalako Vaticanoren laguntza eskatzera. Berak, berriz, Labaien eta Ziaurritz tolosarrak bisitatu zituen eta Bilbora etortzeko asmoa zuela adierazi zien. Ez egiteko aholkatu omen zioten baina ezin zuen burutu, nonbait, herbesteko soseguan, berak berotutako abertzaleak borrokan hiltzen ari zirela jakinda. Baionan Galerna izena zeraman itsasuntzia hartu zuen urriaren 15ean. Itsasuntzi honek hainbat bidaia zituen eginak, pasaiariak eta posta garraiatuz


Baionatik Bilbora, orduko hartan, ordea, erdibidean, Alcazar de Toledo itsasuntziak gerarazi zuen eta pasaiari guztiak atxilotu, haien biziak errespetatuko zituztela esanez. Aitzol gau hartan bertan eraman zuten Ondarretako espetxera.

1936ko urriaren 17an eman zen jakitera prentsa bidez Aitzol ospetsua atxilotua zela eta Ondarretan gartzelaratua. Pozik eta harro zeuden nazionalak Aitzol bezalako “arrain handia” harrapatu izanaz.

Egun haietan Ondarretan atxilotuta egon zen Jacques Pelletier kazetari



El Diario Vasco, 1936ko urriaren 17ko alea. Horrela agertu zuten Galerna itsasuntzia harrapatu zuteneko berria.



Urriaren 17ko datuz orduko komandante-epaileak sinaturiko Aitzolen askatasun-agiria.

frantsesak gerora argitaratu zuen artikulu batean, jipoitzen ari ziren gizon baten sufrimendua deskribitu zuen, baina zeldara ekarri zuten arte ez zuen jakin Aitzol zela ebaindua eta odoleztatuta zekarten gizona. Ez zen bere kabuz zutik ibiltzeko gai.

Urriaren 17ko data daraman "askatasun-agiria" sinatu zuen Aitzolek Ondarretako gartzelaren idazkaritzan jaso zegoenez, baina, gerra zibilean afusilatu zituzten beste askoren kasuan bezala, askatasun-agiri horrek bere heriotze sententziak adina balio izan zuen. Hurrengo goizaldean bertan izan zen afusilatua Hernaniko hilerriaren hormaren kontra, beste zenbait abertzalerekin batera. Ez epaiketa eta ez beste.

«Gaean zehar, berandu, zeldak ireki egiten dira. Arma-hotsa. Pausoak. Oldartze-mugimendu oro itotzen dut nigan. Prest naiz. Zeldatik atera egiten naute. Eskuak atzetik lotzen dizkidate. Galerian, zelden aurrean, Galernatik bizirik ateratakoak pilatzen dituzte. Ariztimuño apaiza desitxuraturik ikusten dut, aurpegi beltz eta puztuarekin. Ez dut garbi ikusten. Bi zaintzalek eutsi egiten dute, errestan daramate. Egoera honetan fusilatu behar dute... Guardia Zibil dozena batek, bere trikor-nio dizdiratsuekin, inguratu egiten gaitu hilegira eramateko».

«Lehen solairuan zaintzaileak gela-aurre batetara narama, gela haundi eta bilutsia. Asperenak entzuten ditut, gorputz bati emandako zigorraren hots hitsa. Aldameneko gelan gizon bat kolpatzen ari dira, torturatzen ari dira. Abere bati makilkadak ematen entzutea penagarria bada, are penagarriagoak dira gizon bati emanikako tratu txarrak. Kolpeak tarte berdinetan entzuten dira. Asperenak orain garrasi ozenak dira, intziriak gero, eta azkenik, hatsa falta dela ikusten da. Jada, ez dira gehiago entzuten, gorputz geldo batetan emandako zigorra besterik ez, koltxoi baten gainean izango balitz bezala. Suplizioak ordu erdi bat irauten du gutxienez. Ikarak, izualdiak jelatuta nauka. Ate bat ireki eta gizon torturatua agertzen da. Ariztimuño apaiz azkarra da, Galernako nire adiskidea. Ia ezin da ezagutu. Odolak itsutu egiten du eta ezin nau ikusi. Asperen ahula dagio eta nekez ibil daiteke».

Euskaratutako testu hauetan Tolosako Udalak argitaratutako Jose Ariztimuño "Aitzol" liburuxkan agertu bezala daude jasota Jean Pelletier frantsesak Le Soir egunkarian Aitzolen heriotzaz eman zuen lekukotza.



## NORTASUNA

Aitzolen izakera beroa ongi erakusten dute bere bizitzako jokabideek. Borondate handikoa, langile porrokatua eta jardueren antolatzaile aparta zela adierazten dute ezagutu zutenek. Burutu zituen langintza guztiek ematen digute aditzera dohai horiez eteteraino baliatzen zela, epelkeriarik gabe. Sinesten zuen hartan jartzen zuen bere kemen guztia eta esan daiteke beste askorentzat amets huts izango ziratekeenak egia bilakatzeko ahaleginak egiteko prest izaten zela. Ezinak eta eztabaidak gora behera.



Hermaniko hilerrian dago Aitzolen hilobia.

## SOZIOLINGUISTIKA ARLOKO IDATZIAK

Aitzolen kezka nagusietako bat izan zen aipatu dugun proiektuaren barruan politikak eta gizarte antolakuntzek hizkuntzaren bilakabidean zuten eragina. Bereziki aztertu zituen Europako mugimendu abertzaleak eta hizkuntza gutxiagotuak berreskuratzeko egiten ziren ahaleginak.

Biziki interesatzen zitzaizkion Finlandia eta Irlandako prozesuak, nazio burujabeak bilakatu zirenetik, beren hizkuntzaren alde egiten zituzten lanen norabidea eta arrakasta-mailak aztertuz. Gure

kasuaren antzekoago ikusten zituen ordea, Belgika, Estonia, Katalunia edo Proventzakoak eta bereziki ohartzen zitzaion hauetako bakoitzari, arrazoi ezberdinengatik.

1931ko abuztuan eratu zuen, esate baterako, Euskal Herriko lehenengo Elebitasun Kongresua eta guziaren gainerik bereziki interesatuta zegoen Hezkuntza Sistema euskalduntzeaz. Euskal maisuak elkarrekin harremanetan jartzea eta euren artean antolatzea lortu nahi zuen, konbentziturik baitzegoen hezkuntza zela, komunikabideekin batera, hizkuntzaren indartze- eta berreskuratzeko-prozesuaren oinarri nagusia.

# 13



Aitzol Estoniako Ewal Ammende-rekin 1928an. (Kutxa Fototeka)




Kataluniako bisitariak 1933an: Roig i Llop eta J.M. Batista i Roca Aitzolekin. Eskuinaldekoa Jon Zabalo Ballarin, Txiki marrazkilaria ospetsua da. Bereak dira garai hartako hainbat kartel, komiki, karikatutura eta liburu-azal ezagunak. (Kutxa Fototeka)



Bere saiakera ospetsuenak gai honi loturikoak dira:

*La muerte del euzkera* (1935). Euskararen irtenbide gabeko heriotzaren iragarpenaren aurkako argudiaketa da liburu hau, eta atalez atal argitaratu zuen lehenik egunkarietan. Oso ezaguna izan zen bere garaian. Aitzolen garaiko zenbait intelektual euskaldunek eta espainiarrek euskararen arkaikotasunari eta atzerapen handiari begiraturik, heriotza iragarria zioten. Iritzi horiek euskararen gizarte mailako prestigio kulturalari kalte egiten ziotela ohartzen zen Aitzol, kultur mintzabide gisa etorkizunik ez zuela esanez, alfer-lana zela adierazten baitzuten euskararen galerari eusten saiatzea.

Aitzolek aldiz, euskararen mendez mendeko bilakabidearen inguruko azalpen ugari bildu zituen bertan eta, munduko beste hizkuntzen hainbat gorabera historikorekin alderatzean, bizitzeko aukerak beste edozeinek adina izan zitzakeela frogatu zuen, ez dutela hizkuntzek berezko ezer baliozkoago egiten dituenik, eta mundu modernoan iraun ahal izateko hartu beharreko bideak erakusten saiatu zen, soziolinguistika modernoaren oinarritzko zenbait kontzeptuz balliatuz.



Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa, Euskaltzaleak, 1935. Elebitasunari buruzko saio luzea da eta bereziki, Finlandia, Belgika eta Euskal Herriko egoera soziolinguistikoak aztertzen dira.



Euskaltzaleak erakundeak argitaratu zuen 1935ean.

## EUSKALTZALEAK

Aitzolen gidaritzapean Euskaltzaleak erakundeak hainbat arlo ezberdinetara iritsi nahi izan zuen, euskararen prestigiatze- eta bizkortze-lana helburutzat harturik. Ekintzek alderdi ezberdin ugari biltzen zituzten: alde batetik, herri maila zabalari begira antolatutako aktibitateak, hala nola Euskarari Omenaldiak, Emakumeen Omenaldia Euskarari eta Haur Euskaldunaren Eguna bezalako jaiak ospatu ziren.

Bestetik, berriz, bereziki euskal literatura garatzera bideraturiko ospakuntzak finkatu zituen zenbait urtetarako eta periodizitatea ematen saiatzen zen, urteko halako egun jakin batean ospa zitezela bilatuz, esate baterako: Eusko Olerti Jaiak (1930-36) beti udan egiten ziren, Euskal Antzerkiaren Eguna San Tomasetan, Bertsolari Guduak (1935-36) aldiz, San Sebastian egunaren inguruan, Euskadiko Nobela saria...



Euskaltzaindiarekin bilduta Euskaltzaleak erakundearen ordezkari gisa. (Kutxa Fototeka)

Euskaltzaleak-ek, erakunde gisa, hizkuntzaren arlo ezberdinetan ihardun zuen lanean, eta bereziki ospakuntzak, propaganda eta argitalpenen alorrak hartu zituen. Eusko Ikaskuntza erakunde orokorraren baitan ziharduen halere, eta euskararen alderdi linguistikoez, testugintzaz, argitalpen-zerbitzuez eta abarrez bereziki arduratzen ziren beste erakundeekin lankidetzan; hala nola, Euskaltzaindiarekin, editorialekin eta beste zenbait elkarterekin.

Euskaltzaleak erakundearen berriak eta lanak argitaratzeko 1933an Aitzol *Yakintza* aldizkaria argitaratzen hasi zen eta, bereziki, taiu literarioa ematea hartu zuen helburutzat. Kultur maila jaso zuen irakurlegoari zuzenduta zegoen, eta sortze-lanak, kritikak, erreseinak, saiakerak, etabar ezagutzera ematea zuen helburu.

Yakintza aldizkari kulturala zen. Aitzolek bereziki joera literarioa eman nahi zion, baina orokorrean euskal hizkuntzari eta kulturari zegozkion gaiak bildu zituen bertan (1933-36).



## POEMA NAZIONALA

Aitzolek Europaldeko garaiko berbizkunde-mugimenduak arreta bereziaz aztertzen zituen, ikusi dugunez. Ederki ezagutzen zituen Finlandia, Belgika, Irlanda eta Kataluniakoak, eta batez ere urte haietan arrazoi bereziengatik puripurian zegoen Proventzakoa ere bai. Izan ere, Frantziako Midi aldeko hizkuntza gutxiagotua zen probentzeraren berbizkunde-aroa bizi baitzen. Idazle-talde bat ari zen osatzen Frederi Mistral idazlearen inguruan eta, gainera, 1930ean Nobel saria irabazi zuen, nazioarteko mailan oihartzun handia lortu zuelarik. Bere obra hainbat hizkuntzatarara itzuli zen eta hizkuntza literario gisa prestigioa irabazi zuen.

Aitzolek herrien nortasuna eta arimaren bizi-aukerak literatoen

eskuetan zeudela uste zuen, nolabait aski zela idazle gailen baten maisulana hizkuntzaren etorkizunari bultzada erabakiorra emateko. Proventzakoaz gain, Finlandiakoa bezalako kasuak bereziki deigarriak ziren beretzat, izan ere mugimendu abertzale finlandarraren bilakaerak bultzada sendoa izan baitzuen Lonnot izeneko idazle batek idatziriko *Kalevala* poema epikoa argitaratu zuenean, herri-poesiaz baliaturik osaturiko obra enblematikoaren inguruan identifikazio-sentimendu batek bildu zuen herria. Bestalde, gure poesia herrikoia estetik bereziarengatik interes handia zuen, eta euskal poesia herrikoien iruditeriari buruzko saio interesgarriak argitaratu zituen, horien artean *Eusko olertikera berezia* deritzona da estimatuenetarikoa.




Mireio eta Euskaldunak Aitzolek poema nazionalaren inguruan zuen ametsaren errealizazioak, Orixeren eskutik.

Mistrali omen egiteko eskatu zion Aitzolek Orixeri *Mireio* obra itzultzeko, eta berehala argitarazi zuen 1930ean bertan. Laster ikusi zuen Orixek zela *Kalevala* edo *Mireio* bezalako euskal maisulana idatzi zezakeen idazlea, herri-poesiaren ekkaria bildu eta narrazio literario batean bilbatzeko gaitasuna zuena. Aita Estefania literatura-irakasleak ere antzerako iritzia adierazi zuen... Horregatik, dirulaguntza bat eskaini eta Orixek

herrira etorrazazi zuten Orixek, Bilboko *Euzkadi* egunkariko lana utzita. 1935erako umatua zuen Orixek *Euskaldunak* poema epikoa, nekazari-gizartearen oinarrituriko euskal herriaren bizi-ohiturak eta lanak kantatzen. Baina urte haietan Aitzolek ez zuen liburua argitaratzeko dirurik lortu ahal izan eta 1950a arte ez zen argitaratu.

17



Euzkadi egunkariaren 1930 eta 1932 urteetan argitaratu zituen artikulua. Aitzolek bereziki interesaturik zegoen Euskal Herriko poesiagintza herrikoieraren estetika bereziaz.



## OLERTI EGUNAK

*Euskaltzaleak* erakundeak antolaturiko ekintzen artean, oihartzun berezia lortu zuten Olerti Egunak eta Bertsolari Guduak izenekoek. Olerti Egunak jai euskaltzaleak ziren, baina bereziak ziren zeren haietan garrantzi nagusia baitzuen poesiak: euskal poesien errezitazioak eta sariketak hartzen zuten ohorezko toki ospakizunetan. Sariketa eta ospakuntza hauen inguruan eratu zen idazle taldearen emaitza paregabeak bilakatu zuen Aitzolen belaunaldi hura euskal poesiaren urrezko aroa.

Olerti Jaiak 1930etik 1936ra bitartean ospatu ziren: 1930ean Errenterian, Jauregiren omenez, eta Estepan Urkiaga, *Lauaxeta* izan zen irabazle. 1931n Tolosan, Emeterio Arreseren omenez, eta Jose Maria Agirre, *Lizardi* izan zen irabazle. 1932an Hernanin, Iturriagaren omenez, eta Juan Arana, *Loramendi* izan zen irabazle... Poesiaren jai horiek antolatzeaz gain, urteroko ospakizunetara aurkezturiko obrarik interesgarrienak argitaratzen zituen Aitzolek *Eusko Olerkiak* izenburuaz eta hitzaurre kritiko batez aurkezturik.



Eusko Olerkiak. Liburu hauen taiuerak eta aurkezteko diseinuak modernitate-kutsu nabaria dute, garaiko irakurleko kultoarentzat erakargarri gertatzeko moduan.



Errenteriako Olerki Jaiko argazkia. Orixe, Lauaxeta, Lizardi eta Aitzol eliza-atarian.



## BERTSOLARITZA (1935-1936)

Aitzolen irakasleetako bat izandako Manuel Lekuonaren eskutik etorri zen mende honen hasieran bertsolaritzaren fenomenoaren garrantzi literario eta kulturalaren errekonozimendua. Lekuonak argitaratua zuen *Literatura oral vasca* izeneko liburua 1919an eta hainbat hitzaldi eman ere bai, bere ustez, gutxietsia eta bazterrera utzia zegoen euskal kulturaren manifestaziorik bizi eta aberatsenetako bat zenari buruz. Aitzolen artikuluetan, berriz, 1930etik bertatik hasita bere artikuluen gaiei erreparatuz gero, urtetan zehar ohar daiteke bertsolaritzaz zuen interesa areagotzen, eta Olertia, Antzerkia, edo Nobelaren sustapenerako ekintzak abiarazi ondoren, 1935ean lortu zuen antolatzea Lehenengo Bertsolari Gudua.



Basarri omenaldia jasotzen Aitzol eta Orixeren eskutik.

Iparraldean Anton Abbadiak antolatzen zituenen erara egin zuen eta deitura ere haietatik hartu zuela dirudi: Abbadiaren Koplarien Guduak Aitzolen Bertsolari Guduak bilakatu ziren, eta gerra ostean, berriz, orain ezagutzen ditugun Bertsolari Txapelketa bihurtu ziren.

Bi besterik ez ziren ospatu ahal izan gerra hasi aurretik; lehenengoa, Gran Kursaal antzokian egin zen 1935ko urtarrilaren 20an, San Sebastian egunez. Jende aldetik arrakasta handia lortu zuen. Hogei urteko Basarri bertsolari zarauztarrak irabazi zuen lehen saria eta Aitzol bera antolatzaile ezezik, epaimahaiko ere izan zen. 1936ko bigarrena, aldiz, Victoria Eugenia izan zen San Sebastian bezperan, eta orduko hartan Txirrita bertsolaria izan zen irabaztuna.

19



20

36ko gerra sortuko zen hotsa  
zebilen bazterretan, eta  
bertsolariei gai modura jarri  
zitzaien. Hauek dira Txirritak  
jarritako bertso gogoangarriak.

Aspaldi ontan errezatutzen  
Sari egon naiz elizan  
Ikusirikan gure artean  
Pakean nola gabiltzan.  
Ni baño ume kobardeagorik  
Mundu ontan ez da izan  
Semerik gerran ez iltzearren  
Mutilzar gelditu nintzan.



Txirrita, Basarri eta Uztapide... garaiko bertsolaririk hoberenak ekarri zituen txapelketara.